

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3011

1157/2020 EBAZPENA, uztailaren 9koa, Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez José Antonio Márquez Navarro jauna Hematologiako zerbitzuburu sanitario kargutik kendu egin den, Osakidetzako Bilbao-Basurtoko ESIan.

451/2019 Ebazpenaren bidez, martxoaren 1ekoa, José Antonio Márquez Navarro jauna Hematologiako zerbitzuburu sanitario izendatu zuten Osakidetzako Bilbao-Basurtoko ESIan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– José Antonio Márquez Navarro jauna Hematologiako zerbitzuburu sanitario kargutik kentzea, berak hala eskatuta, Osakidetzako Bilbao-Basurtoko ESIan; eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2020ko uztailaren 12tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Bilbao-Basurtoko ESIari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakiokete Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2020ko uztailaren 9a.

Bilbao-Basurtoko ESIko zuzendari gerentea,
EDUARDO MAIZ OLAZABALAGA.